

Hamabi sagardogileren sagardoa probatzeko aukera igande honetan, Sagar Egunean

■ Sagardo probaketaz gain, sagarrari buruzko erakusketa, tresna zaharrei buruzko erakusketa eta kiskia erabiltzeko erakustaldia izango dira ■ Igandean bertan Kriskitiña dantza taldeak trikitixa txapelketa antolatu du.

TOLAREA, Gipuzkoako sagardo Naturalaren Kofradiak igande honetarako, hilak 19, Sagar Eguna antolatu du, Plazan. Sagardoak probatzeko postuak jarriko dituzte eta Hernaniko 12 sagardogileren sagardoak izango dira aukeran. Tolareko arduradunek adierazitakoaren arabera, sagardo eguna sagarra eta sagardoaren kultura bultzatu eta ezagutarazteko antolatzen dute. Orain hasten dira aurreneko

sagarrik biltzen sagardoa egiteko eta Tolareko arduradunek diotenez, sagardo usaina somatu orduko hasten dira sagardoaren inguruko ekitaldiak antolatzen.

Festa eguerdi partean

Goizetik Txistulari Bandak kale buelta egingo du baina festa nagusia eguerdi parteko 11:30etan hasiko da. Ordu horretarako plazan sagardoa probatzeko aukera izango da, eta

guztira 12 bat sagardogileren sagardoak jarriko dituzte aukeran. Basoak jarriko dituzte salgai guzti hauek probatzeko eta guztira 1300 bat baso bantzeko asmoa du Tolareak.

Sagardoarekin batean pintxoak ere egongo dira aukeran: txorizo egosia, odolkia eta gazta.

Sagar erakusketa

Sagar Egunean sagar erakusketa jarriko dute Plazan ber-

tan. Izan ere, urte sasoi honetan hasten dira sagardoa egiteko aurreneko sagarrak biltzen eta erakusketa honen bitartez guzti horiek ezagutzeko aukera izango da, baita sagarra jaso aurretik izaten den prozesua ere, azalduko dute.

Sagardoa egiteko garai batean erabiltzen ziren tresnekin erakusketa jarriko dute arketan. Bertan ikusi ahal izango dira garai bateko sagardo botilak eta tresna zaharrak, beste-

ak beste. Kiskiarekin sagarra biltzeko aukera izango dute bertara hurbiltzen direnek eta erakustaldi bat egingo da sagarra kiskiarekin nola bildu, sagarra zakuan nola sartu, eta zakua nola lotu behar den ikusi eta ikasteko.

Trikitixa txapelketa

Sagar Egunean bertan, Kriskitiña taldeak trikitixa txapelketa antolatu du eta plaza trikiti doinuz girotuko dute. □

Amaia Zabaloren argazki periodistikoak, Bodega tabernan

■ Donostiako Argazki Periodistikoen Jardunaldien barruan dago erakusketa ■ Hamar argazki aukeratu ditu Zabalo erakusketarako.

AMAIA Zabalo Gaintxurisetako argazkilariaren hamar argazki daude Bodega tabernan, lehengo osteguna ezker. Zabalo berak egindako aukeraketa da, Kronikari esan diotenez “asko kostatako aukeraketa”. Argazki politiko eta kulturalak daude egilearen hitzetan eta guztiek dute “esana-hi bereziren bat” argazkilariarentzat: Euskal Presoen familiarrena, Palestinaren aldeko manifestazio batekoa, Bilboko irailaren 14ko manifestazio-koa, 2002ko Oleretako Gudari Eguna, Olaia Kastresanaren hileta, Xarlo Etxezarretari kartzelatik irtendakoan egindako omenaldia, Lasarteko Artzai Eguna, Hipodromoko argazkia, Jaizkibelgo baserritarra eta Bartzelonako etxe okupatuari buruzko argazkiak dira daudenak, eta beste txikiago bat errauskailuaren kontrakoa. Euskal Herriko Informatzaile Grafikoen Elkarteak Donos-



Amaia Zabaloren argazkiak Bodega Tabernan.

tian antolatutako Argazki Periodistikoei Buruzko Jardunaldien barruan dago jarria erakusketa.

Ia denak publikatuak

Zabalo 6 urte daramazki egunkari eta aldizkarietarako lanean eta aurretik ere argazkilaritzako

kurtsoak hartu eta eman ditu. Egunkaria, Deia, Gara, Kale Gorria, Haizu, AS, Ikastola, Bertsolari eta abarretarako egin

ditu lanak. Gaur egun AS eta Haizu aldizkarietarako aritzen da gehien bat. Erakusketan jarri dituen ia argazki guztiak publikatutakoak dira. Kronikari esan dionez, kirola eta politikako argazkiak egitea tokatzen zaio gehiena, baina, ez du kiroleko argazkirik jarri, dagoneko nahikoa eginda dagoelako.

Gaur egun, kamara digitalak medio, konpetentzia asko haunditu dela uste du, “edonork egin eta bidali bailezake argazki bat, baina, guk erakutsi beharra daukagu profesionalak zergatik garen”.

Momentua harrapatzea

Argazkigintza periodistikoaren muina momentua harrapatzea da Zabaloren ustez. “Momentu bakoitzean leku egokian egon behar da eta gero egun inspiratua izatea ere garrantzitsua da argazki on bat ateratzeko. Askotan zorte kontua da argazki on bat ateratzea”. □

AMEGAR

Etxe tresnak
Altzariak

Elektrogailuak
TB- Bideoak-
HI-FI-Opariak

Sukalde altzariak

Tel.: 943 55 11 25
Faxa: 943 55 16 03

HERNANIKO UDAL EUSKALTEGIA ZORIONAK!

HABEren 1. edo 2. maila, EGA agiria edo hizkuntz eskakizunen bat atera duzuen guztiok

04-05 IKASTURTERAKO MATRIKULALDIA ZABALIK

irailaren 6tik 24ra

Diru-laguntzak ere badauzkagu.

Galde ezazu euskaltegia (Karobieta 63an, anbulatorio zaharrean)!

☎ 943 331896

e-mail: euskaltegi@hernani.net

Ordutegia: 9:00-13:00 / 16:00-19:00

HERNANIKO UDALA

HERNANI HIZKUNTZAK
(Gure Ingelesetxea)

ZORIONAK guztiontzat
Advanced eta First
azterketak gaingidteagatik.

DATORREN IKASTURTERAKO MATRIKULA ZABALIK

Deitu Alan/Joe: 943 33 11 08

KALE NAGUSIA 41, 1

musika eskola DOINU-ZALE

KARABEL AUZOA, 4 • behea ezkerre

☎ 943 33 12 33 - 20120 HERNANI

Musikaren lenguaia
Pianoa
Akordeoa
Panderoa
Bateria Modernoa

Tronpeta
Triki-tixa
Kitarra
Abesbatza
Armonia

MATRIKULA ZABALIK:
IRAILAREN 6tik 17ra. Arratsaldetan, 16:00etatik 20:00etara.

HELDUENTZAKO IKASKETA BEREZIAK ~ TALDE TXIKIAK ~ MUSIKA LENGUAIA 4 URTETIK

Molotoff irratiak bilera du asteazkenean programazio berria osatzeko

■ Interesatu guztiak Motofera azaldu (Sagastialde 16, behea), arratsaldeko 20:00etan ■ Irratiko aparailuak erabiltzen ikasteko ikastaroa egingo da.

MOLOTOFF irrati libreak (FM 99.2) bilera du etzi, asteazkena, kurtso berriko programazioa egiteko. Nahi duenak ditu atea zabalik, Molotoffeko arduradunek Kronikari esan diotenez eta interesatuak bilerara azaldu behar dute, arratsaldeko 20:00etan. Asmoa da urrirako martxan jartzea programazio berria eta bitartean, musika emititzen jarraituko du Molotoff irratiak, eguneko 24 orduz.

Ikastaroa

Irratiko aparailuak ezagutu eta erabiltzen ikasteko ikastaroa ere prestatu du irratiak. Aurrez irratiaren ibilbidearen jendearentzat irailaren 14 eta 16an izango da ikastaroa; eta hasi berrientzat irailaren 21 eta 23an izango da. Ikastaroak



Irratiko mahaia nola erabili erakutsiko dute ikastaroan.

debaldekoak dira eta arratsaldeko 20:00etatik 21:00- etara izango dira beterrano nahiz berrientzat. □

Gazte Txokoak ireki ditu ateak, iazko urteko erantzun ona errepikatzeko helburuarekin

■ Iazko balorazio baikorra egin dute eta 150 bazkidetik gora izan dituztela adierazi dute ■ Egiako Porrontxotara eta Leitzaranera irteerak egingo dituzte irailean.

GAZTE Txokoak ateak ireki berri ditu udako oporraldiaren ondoren eta irailarako egitarau zabala prestatu dute. Atzo, esate baterako, Santa Clara uhartera irteera antolatuta zuten eta datorren larunbatean, Leitzarana eta igandean, Egiako Porrontxotara dute egitekoa irteera. Hilaren 23tik 25era itxita egongo da Gazte Txokoa

eta hilaren 29 eta 30an tatuaje tailerrak egingo dituzte, animatzen diren Hernaniko neska mutil gazteek. Ekintza guzti hauek debalde izaten dira.

Balorazio ona

Iazko ikasturteko balorazio ona egin dute Gazte Txokoko hezitzaileek, aurreko ikasturtetik gazte kopuruak nabar-

men gora egin baitu beren hitzetan. 150 bazkidetik gora izan zituen iaz Gazte Txokoak eta aurten 200 bazkidetara iristea izango da helburua.

Aurtengo ikasturtean *sex-drog* informazio puntua mantentzea espero dute hezitzaileek eta *eskatzea libre* espazioari indar berezia ematen saiatuko dira. □



Karabelgo rotunda ireki dute. Akarregiko poligono berria eta Karabel artean, rotunda egin dute eta irekia dago dagoeneko trafikoarentzat. Zikuñaga-Ereñotzu aldera, Karabel aldera, poligono aldera edo Ibaiondo poligono aurreko rotunda aldera trafikoa bideratzeko rotunda da. Oraingoz borobila izango litzatekeena dago egina, baina, rotunda barrua txukundu gabe dago. □

Igeriketa taldeko argazkia gaur aterako dute

IGERIKETA taldeak irekia du izen ematea, aste osoan, arratsaldeko 18:00etan, kiroldegian. Gaur bestalde, taldeko argazkia aterako dute arratsaldeko 18:00etan, kiroldegian bertan. Izen eman duten guztiak azaldu behar dute

ordu horretarako.

Asteazkenean Batzarra

Etzi, asteazkena, berriaz, urteko batzarra egingo du igeriketa taldeak, arratsaldeko 19:30-etatik aurrera, Biteri kultur etxean. □

60 odol emaile irailean

IRAILEKO Odol estrakzioen datuak eman berri ditu Odol emaile elkarteak: Hernanin 60

lagunek eman dute odola eta hauetatik 4, emaile berriak izan dira. □



Kazkabarrak aleak intxaurren ondoan (Arg: Joxemari Santana).

Intxaurrek adinako kazkabarra

OSTEGUNEAN izugarriko harria egin zuen Hernanin, aspaldiko urteetan ikusi ez zen bezalakoa, seguru asko. Herrian bertan ere neurri diferentekoak ikusi dira toki batetik bestera. Hernaniko Kronikara Joxemari Santana Iraolak bidalitako argazkian argi ikusi liteke, zenbait lekutan bota zituenak izugarriak

izan zirela.

Horrelako harriak txiki-zioak ere eragin zituen, normalean den bezala. Zenbait kotxetako kapota eta txapa mailatuak gelditu dira, 50 txoari hilda agertu ziren Tilosetan eta Oriamendiko mintegiko (vivero) kristalak txikitu egin zituen, besteak beste. □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalarion anonimoak: 943 331103
- Alkoholiko anonimo: 943 331103

☎ FARMAZIAK

- Egunez: Correa Perkaiztegi 8 ☎ 943 551933
- Gauetz: Gil Lasarte. Nagusia 24 ☎ 943 361529

IRAGARKI MERKEAK

Pertsona bat behar dugu, 2 ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. 7:30etatik- 15:30etara gutxi gorabehera. Irakasle egutegia eta Aieten da. Deitu: **943 31 47 84 - 669 89 10 34**

Itziar Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,... **943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)**

AUXILIAR Administrazioa. Eusko Jaurlaritza, Udaletxeak: Zarautz (6 plaza), Hernani, Usurbil, Beasain, Bergara. Informa zaitez: **943 43 41 27**

TXOFERRAK. Plaza fijoak Eusko Jaurlaritza, Udaletxe, Foru Aldundietan. Doaneko informazioa: **943 43 41 27**

SUKALDE laguntzaileak, garbitzaileak, serbitzariak. Plaza fijoak: Udaletxe, Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundi, eskolatan.. Doaneko informazioa: **943 43 41 27**

HAURTZANDEGI publikoak, behar dituzte: irakasleak, edukatzaileak, zaintzaileak, asistentak. Doaneko informazioa: **943 43 41 27**

LIBURUTEGIAK, rezeptionistak. Plaza fijoak: Udaletxe, Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundietan. Doaneko informazioa: **943 43 41 27**

LABORATORIOKO AUX. Teknikoa. Depuradoretako ur kontrolatzailea, analisi klinikoak. Doaneko informazioa: **943 43 41 27**

BASOZAINA, 17 plaza, Administrazio Publiko Saila. Informa Zaitez: **943 43 41 27**

KONTSERJEAK, lan postuak, Udaletxe, Eusko Jaurlaritza, Eraikuntza publikoak. Doaneko informazioa: **943 43 41 27**

SUHILTZAILE. Postu libreak Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko parketan. Kondizio ekonomiko ezin hobek. Doaneko informazioa: **943 43 41 27**

REZEPTIONISTA-Telefonista. Plaza libreak Eusko Jaurlaritza eta Udaletxeetan. Laster hasteko. Doaneko informazioa: **943 43 41 27**